

Ohiko galderak

1. Norentzat da Vital Open Science 2021?

VOS 2021 Arabako ikastetxe publiko, itundu eta pribatuetako lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleei zuzendutako prestakuntza praktikoa da.

2. Zergatik programazio esperimentalak STEAM arloetan?

Programazio honen bidez, Vital Fundazioak VOS2020 programarekin jarraitzeko zuen eskaerei erantzuten die, eta hezkuntza eta prestakuntza zientifiko-teknikoan lagundu nahi du hezkuntza-etapa guztietan, STEAM EUSKADIren helburuekin bat etorritz.

3. Zenbat prestakuntza-saio egin behar dituzte irakasleek?

Bai lehen hezkuntzarako bai bigarren hezkuntzarako programak hiru prestakuntza-saio ditu, bakoitza hiru data eta ordutegi zehatzetan ematen dena.

4. Nori dago zuzenduta eta nola eskaintzen da?

Lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleei zuzenduta dago, doakoa da, eta online edo aurrez aurre eskaintzen da.

5. Zein helbururekin?

Helbururik garrantzitsuena STEAM hezkuntzari bultzada emango dioten prestakuntza-ekintza berriak ezartzen laguntzea da. Aldi berean, irakasleak prestatzea, ikastetxeei ekipoak eta tresnak ematea, eta garrantzitsuena, ikasleek zientzia eginez zientzia ikas dezaten lortzea bilatzen dugu.

6. Nola lortu nahi da helburu hori?

Irakasleak gaitzea, haien lana erraztea eta jarduera horiek ikasleei helarazteko beharrezkoa den guztiaz hornitzea.

7. Zer behar da tailerrak egiteko?

Irakasle-talde bakoitzak kit bat jasoko du, beharrezko errektibo eta ekipoekin. Kit hau eskura emango da aurrez aurreko tailerra egiteko. Tailerra online egitea erabakitzen dutenek kit bat jasoko dute postaz. Programa honekin batera material didaktikoa ere eragingo da, prestakuntza-ekintza horiek errazago ezartzeko.

8. Posible al da tailer batzuk online eta beste batzuk aurrez aurre egitea?

Ez. Aurrez aurreko programa edo online programa hautatu behar da izena emateko prozesuan.

9. Zenbat irauten dute tailerrek eta noiz emango dira?

Tailerrek 90 minutuko iraupena izango dute gehienez, eta 2021eko abendutik 2022ko martxora bitartean emango dira.

10. Zenbat ikastetxek har dezakete parte?

Guztira 20 plaza prestatu dira Lehen Hezkuntzako zentroetarako eta 20 Bigarren Hezkuntzako zentroetarako. Lehen eta bigarren hezkuntza ematen duten ikastetxeek bananduta eska dezakete bi programetarako izena ematea. Plazak izena emateko hurrenkeraren arabera esleituko dira, eta ahalik eta parte-hartze zabalena eta askotarikoena bilatuko da.

11. Zenbat irakaslek har dezakete parte tailer bakoitzean?

Gehienez ere bi pertsona sar daitezke aurrez aurreko tailerretan, eta gehienez 5 pertsona online tailerretarako, solaskide bakarrarekin.

12. Beharrezkoa al da programak eskaintzen dituen hiru sesioetan parte hartzea?

Bai. Irakasleek prestakuntza-tailer guztiak osatzeko konpromisoa hartzen dute, nahiz eta horietan irakasle-taldeko hainbat pertsona parte har dezaketen.

13. Zientzia irakasleei bakarrik zuzenduta dago?

Ez. Zientziako eta arte edo teknologiako irakasleek parte hartzea gomendatzen da gai horiek biltzen dituzten tailerretarako. Funtsezkoa da parte hartzen dutenek tailer horiek irakasleei emateko konpromisoa hartzea.

14. Zein konpromiso jasotzen dituzte parte hartzen duten ikastetxeek?

Prestakuntza-tailer bakoitzean gutxienez irakasle-taldeko pertsona bat egotea eskatzen da, eta, jarduera egin ondoren, ikasleei helaraztea. Prestakuntza-tailerra osatu ondoren eta tailerra ikasleei eman ondoren, parte-hartzaileek ebaluazio-formulario erraz bat betetzea eskatuko zaie.